

BERTARATU DIREN ZINEGOTZIAK

LORENZO ZUBILLAGA GOICOECHEA
NEREA YEREGUI BALDA
IÑAKI ELIZALDE ZUBILLAGA
MARIA CRISTINA VAL SARDON
IGOR OTERMIN EGUIA
AITZIBER OTAMENDI ECHARRI
ANDER PRADOS OTAMENDI

BERTARATU EZ DIRENAK

IDAZKARIA

Joanes Aleman Olo

Betelun, Udaletxeko udal
bilkuren gelan, 2023ko
uztailaren 21ean arratsaldeko
zazpi eta erdiak direnean,
ondoan aipatzen diren
zinegotziak elkartu dira,
Lorenzo Zubillaga
Goicoechea alkatea buru dela
eta egintzaren fede ematen
duen Joanes Aleman Olo
idazkariak lagundurik.

Udal bilkura dagokion deialdiaren ondoren egin da, erreglamentuan ageri den aurrerapenarekin eta deialdia beraren eta gai zerrendaren ale bat udaletxeko iragarki oholean iragarri ondotik.

Ohiko izaera duen bilkura irekirik eta lehendakaritzak publikoa dela esanik; Idazkariak bilkura hasteko behar den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztaturik; gai zerrendan diren ondoko puntuak aztertzeari ekin zaio.

1. 2023-06-17, 2023-06-21 ETA 2023-06-26 UDAL BILKURETAKO AKTEN ONARPENA

Deialdiarekin batera banatu diren 2023-06-17ko, 2023-06-21eko eta 2023-06-26ko bilkuretako akten inguruan udalbatzako kideren batek zerbait esateko duen galdetu du lehendakariak.

Zinegotzi bakar batek ere ez du deus adierazi.

Lehendakariak aktak bozkatzera ekarri eta udalbatzak aho batez onartu ditu.

2. ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENAK:

1.Kirol Mankomunitatea

Beteluko Udaleko alkateak, Miguel Javier Recalde Goldarazek, 2023ko maiatzaren 26an, 39/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Kirol Mankomunitateari frontoia erabiltzeko baimean ematea ekainaren 21ean , 17:00etatik 18:etara, irristaketa ikastaro bat antolatu ahal izateko.

2.Alvaro Vega

Beteluko Udaleko alkateak, Miguel Javier Recalde Goldarazek, 2023ko maiatzaren 26an, 40/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Monteko Santo Cristo de la Misericordia Parrokiaren izenean ari den Alvaro Vegari uztailaren 15etik 16rako gaua igarotzeko baimena ematea.

3.Sorgintxo Haur Eskolaren egutegia eta ordutegia

Beteluko Udaleko alkateak, Miguel Javier Recalde Goldarazek, 2023ko maiatzaren 30ean, 41/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2023-2024. Kurtsorako Sorgintxo Haur Eskola Haur hezkuntzako lehenengo zikloko zentroko ordutegia eta egutegia onartzea.

4. Elene Sorozabal

Beteluko Udaleko alkateak, Miguel Javier Recalde Goldarazek, 2023ko maiatzaren 30ean, 42/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Elene Sorozabali baimena ematea Beteluko frontoi estalia eta bere instalazioak 2023ko uztailaren 31tik abuztuaren 1erako gauan erabiltzeko.

5. Matias Fernando Novarino

Beteluko Udaleko alkateak, Miguel Javier Recalde Goldarazek, 2023ko ekainaren 1ean, 43/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Matias Fernando Novarinori Beteluko 2. Poligonoko 442. Lursailean txabola bat egiteko hirigintza baimena ematea.

6. Ordainketa agindua

Beteluko Udaleko alkateak, Miguel Javier Recalde Goldarazek, 2023ko ekainaren 7an, 44/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2023ko apirilaren 26an egindako osoko bilkuran onartu ziren fakturak ordaintzea.

7. Ikai Tecnologías Avanzadas

Beteluko Udaleko alkateak, Miguel Javier Recalde Goldarazek, 2023ko ekainaren 12an, 45/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Ikai Tecnologías Avanzadas SLri Beteluko udaletxeko erabilera anitzetako gela erabiltzeko baimena ematea ekainaren 14an 19:30etan, bizilagunei fibra optikari buruzko proiektuaren gaineko informazioa emateko bilera egiteko.

8. Ibai Tellechea Pereda

Beteluko Udaleko alkateak, Miguel Javier Recalde Goldarazek, 2023ko ekainaren 12an, 46/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Ibai Tellechea Peredari Beteluko udaletxeko erabilera anitzetako gela erabiltzeko baimena ematea ekainaren 14ean ehiztarien bilera egiteko.

9. Araxes Herri Kirol Kirol Taldea

Beteluko Udaleko alkateak, Miguel Javier Recalde Goldarazek, 2023ko ekainaren 12an, 47/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Araxes Herri Kirol taldeari ekainaren 17an, eguraldiaren arabera frontoia edo plaza erabiltzeko baimena ematea.

10. Telefonica de España

Beteluko Udaleko alkateak, Miguel Javier Recalde Goldarazek, 2023ko ekainaren 12an, 48/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Telefonica de Españari Beteluko Kale Nagusiko 2. Zenbakitik gertu telefoniako bi zutoin ordezkatzeko baimena ematea.

11. Telefonica de España

Beteluko Udaleko alkateak, Miguel Javier Recalde Goldarazek, 2023ko ekainaren 15ean, 49/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Telefonica de Españari NA-1300 karreterako 23. Km inguruan bi poste eta bost txarrantxa ordezkatzeko baimena ematea.

12. Ordainketa agindua

Beteluko Udaleko alkateak, Miguel Javier Recalde Goldarazek, 2023ko ekainaren 15ean, 50/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2023ko maiatzaren 24an egindako osoko bilkuran onartu ziren fakturak ordaintzea.

13. Ferianteak

Beteluko Udaleko alkateak, Miguel Javier Recalde Goldarazek, 2023ko ekainaren 20an, 51/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2023ko San Pedro festak direla eta, lurzoru publikoa okupatzeko baimena ematea.

14. Laura Pascual Mezquita

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoechea, 2023ko ekainaren 22an, 53/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Laura Pacual Mequitari baimena ematea Beteluko frontoi estalia eta bere instalazioak 2023ko uztailaren 16tik 17rako gauan erabiltzeko.

15. Roberto Ortega Ramiro

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoechea, 2023ko ekainaren 27an, 54/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Roberto Ortega Ramirori baimena ematea Beteluko frontoi estalia eta bere instalazioak 2023ko uztailaren 3tik 4rako gauan erabiltzeko.

16. Conchi Ponce Burgos

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoechea, 2023ko uztailaren 11n, 55/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Beteluko 2. Poligonoko 81. Lursailean dagoen Errekaldea etxearen estalkia berreraikitze obrak direla eta, obren segurtasunari eta osasunari buruzko oinarritzko azterlana.

3. BETELUKO 2. POLIGONOKO 30. PARTZELAREN XEHETASUN-AZTERKETAREN HASIERAKO ONARPENA

Copropietarios Goi-Argi sustatzaileak Beteluko 2. Poligonoko 30. Lursailean igogailu bat jartzeko alineazioen aldaketa eskatu zuen xehetasun azterketa aurkeztuta.

Dokumentazioaren inguruan hainbat errekerimendu egin ondoren 2023ko ekainaren 12an aurkeztutako xehetasun azterketaren aldeko txostena egin zuen udal arkitektoak 2023ko ekainaren 15ean.

Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko foru legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 74. Artikuluan ezarritakoari erreparatuta

Toki erregimenaren oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legearen 47.2.ii) artikulua ezarritakoa ikusita, udalbatzaren kide legalen gehiengo osoz, bertaraturako guztiek adostasuna eman baitute, zera onartu dute:

LEHENENGOA: Copropietarios Goi-Argi sustatzaileak Beteluko 2. Poligonoko 30. Lursailean igogailu bat jartzeko alineazioen aldaketa egiteko aurkeztutako xehetasun azterlana hasiera batez onartzea.

BIGARRENA: Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Argitaratzen denetik 20 eguneko informazio publikoa izanen da.

HIRUGARRENA: Akordio hau sustatzaileari jakinaraztea.

4. BETELUKO BAKE EPAILE TITULARRAREN HAUTAKETA

Ikusirik 2023ko maiatzaren 15eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean (101. zenbakia) iragarri zela Beteluko bake-epailea eta haren ordezkoa hautatzeko deialdi publikoa ireki zela.

Ikusirik Bake Epaiaren hautaketan sartzea eskatu duten pertsonen zerrenda

Udalbatzak hau ERABAKI DU:

1. Beteluko Bake Epaille izendatzea MARIA SOTIL GORRITI anderea (NAN zk.: 44632719T), Betelun jaioa (Nafarroa), 1980-12-30ean, Victor eta Micaelaren alaba, Betelun bizi dena, eta helbidea Kale Zaharreko 11ko Amarena etxean duena. Lanbidez administraria.

2. Aipatutako pertsonak legeak eskatzen dituen gaitasun- eta hautagarritasun-baldintzak betetzen ditu.

Udalbatzako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoarekin onartu da akordioa izan ere bertaratutako guztiek aho batez onartu dute.

5. BETELUKO BAKE EPAILE ORDEZKOAREN HAUTAKETA

Ikusirik 2023ko maiatzaren 15eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean (101. zenbakia) iragarri zela Beteluko bake-epailea eta haren ordezkoa hautatzeko deialdi publikoa ireki zela.

Ikusirik Bake Epaiaren hautaketan sartzea eskatu duten pertsonen zerrenda

Udalbatzak hau ERABAKI DU:

1. Beteluko Bake Epaiaren ordezkoa izendatzea ELENA MARÍA TOMÉ PEREDA anderea (NAN zk.: 33427768M), Betelun jaioa (Nafarroa), 1970-07-13an, Amador eta Maria Milagrosen alaba, Betelun bizi dena, eta helbidea Lakobeikoa 4 kaleko 1 A pisuan duena. Lanbidez ile-apaintzailea.

2. Aipatutako pertsonak legeak eskatzen dituen gaitasun- eta hautagarritasun-baldintzak betetzen ditu.

Udalbatzako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoarekin onartu da akordioa izan ere bertaratutako guztiek aho batez onartu dute.

6. 2022KO KONTUEN ESPEDIENTEAREN ONARPENA.

Udal Kontuen Batzordeak 2022ko ekitaldiari dagokion Beteluko Udalaren Kontu Orokorrei buruz 2023ko maiatzaren 24an egindako aldeko txostena ikusirik

Kontu orokorra Udaletxeako iragarki oholean iragarri ondotik 15 egun balioduneko epean, 2023ko maiatzaren 25etik 2023ko ekainaren 14ra arte, jendaurrean egon dela kontuan harturik, interesatuek inolako alegazio edo kexarik aurkeztu gabe.

Nafarroako Toki Ogasunari buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 242.4 eta 242.5 artikuluekin bat, zera ERABAKI DA:

1. 2022ko ekitaldiari dagokion Beteluko Udaleko Kontu Orokorra onartzea.

2. Nafarroako Gobernuako Toki Administrazioako Departamentuari espedientearen kopia bidali.

Lehendakariak akordioa bozkatzera ekarri eta udal bilkuran diren guztien adostasunarekin onartu da.

7. MIGRAZIO POLITIKETAKO ETA JUSTIZIAKO DEPARTAMENTUAREN ETA NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOAREN ARTEKO LANKIDETZARAKO ESPARRU-HITZARMENARI ATXIKITZEKO AKORDIOA, BIKOTE EGONKORRAK ERATZEA ETA ONDOREN FORU KOMUNITATEKO BIKOTE EGONKORREN ERREGISTRO BAKARREAN INSKRIBATZEA ERRAZTEKO

AURREKARIAK

BAT: Nafarroako Gobernuak Migrazio Politika eta Justizia Departamentuak eta Nafarroako Udak eta Kontzejuen Federazioak Lankidetzarako Esparru Hitzarmen bat sinatu dute bikote egonkorren eraketa errazteko eta ondoren Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrean inskribatzeko.

BI: Hitzarmen honek aukera ematen du udal idazkaritzako arduradunaren aurrean bikote egonkorra formalizatu eta iraungitzeko, bai eta inskribatu daitezkeen egintzak Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrera bidaltzeko ere.

HIRU: Beteluko Udak zerbitzu hau bere herriko bizilagunentzat eskaini ahal izateko interesa du.

Ondorioz, Udalbatzak.

ERABAKI DU

1.- Migrazio Politika eta Justizia Sailaren eta Nafarroako Udalerriaren Federazioaren arteko Lankidetzarako Esparru Hitzarmenari atxikitzea, bikote egonkorra eratzeko eta ondoren Foru Komunitateko Erregistro Bakarrean inskribatzeko.

2.- Erabaki honen berri ematea Migrazio Politiken eta Justiziaren Departamentuari (registro.parejas.estables@navarra.es) eta Nafarroako Udak eta Kontzejuen Federazioari (fnmc@fnmc.es).

8. UDALBATZAREN EZAGUTZARAKO

1.- Presako araudiari buruzko bandoa

Udalbatzari Beteluko Udaleko alkateak emandako bandoaren berri ematea. Bando horretan ibai igerilekuaren erabilerari buruzko arauak ezarri dira.

2.- Basozainen inspezio akta

Udalbatzari Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko ikuskatzaileak 2023ko uztailaren 10ean egindako ikuskatze aktaren berri ematea. Lekune naturala den Beteluko artadian, ingurugiro baimenik ez duten eskaladako bideak atzeman dituzte.

9. FAKTURAK

| | | |
|--|---|----------|
| OLANO ZABALETA, MIGUEL RAMON | araxes eskolako ur jarioa konpondu. | 60,50 |
| OLANO ZABALETA, MIGUEL RAMON | urumea ondoko sasiak moztu. | 332,75 |
| OLANO ZABALETA, MIGUEL RAMON | maiatzeko deposituaren mantenimendua. | 90,75 |
| OLANO ZABALETA, MIGUEL RAMON | belarrak moztearena. | 908,11 |
| CAMPOS WALSH, VENUS MARGARITA | eskolako jantokia ura ateratzen. | 211,75 |
| CAMPOS WALSH, VENUS MARGARITA | maiatzeko garbiketak. | 2.278,83 |
| CAMPOS WALSH, VENUS MARGARITA | maiatzeko zakarrontzien bilketa. | 154,28 |
| CAMPOS WALSH, VENUS MARGARITA | apirileko zakarrontzien bilketa. | 123,42 |
| WIKAI | MAIATZEKO GASTUA. | 93,99 |
| NAFARROAKO IPARRALDEKO EUSKARA MANKOMUNITATEA | 2023ko kuota (%50) aurrekontu orokorra | 3.014,00 |
| NAFARROAKO IPARRALDEKO EUSKARA MANKOMUNITATEA | 2023KO KUOTA (%50) ESKUALDEKO AURREKONTUA | 3.637,00 |
| IBERDROLA COMERCIALIZADOR DE REFERENCIA | ARGIZTAPEN PUBLIKOA 2023-04-27 2023- 05-30 | 255,09 |
| IBERDROLA COMERCIALIZADOR DE REFERENCIA | C/ MAYOR 7 -2I (2023-04-27 2023-05-30) | 10,27 |
| OTAMENDI ARTOLA, LORENZO | apirileko tolosako bidaiak. | 120,40 |
| CARRILLO RUIZ, CUSTODIA ANGELES | maiatzeko uraren kontsumoa | 90,00 |
| ARAIZKO UDALA | 2022KO GAZTE AISIALDIA | 412,50 |
| ARAIZKO UDALA | 2021EKO GAZTE AISIALDIA | 570,41 |
| SERLIMPIA, SL. | PRESAKO KOMUNAREN GARBIKETA. | 67,76 |
| M. GARCIA SATRUSTEGUI | F. A1/33 | 70,92 |
| IBERDROLA CLIENTES SAU | ARGIZTAPEN PUBLIKOA 2023-04-30 2023- 05-31 | 434,87 |
| GOIENER, S. COOP. | udaletxeko argia 2023/05/01tik 2023/05/31ra. | 913,32 |
| GOIENER, S. COOP. | eskolako argia 2023/05/01tik 2023/05/31ra. | 879,21 |
| COMERCIAL FERVIS | Garbiketako produktuen erosketa. | 122,06 |
| ANIMSA | MANTENIMENDUA 2º T | 1.120,14 |
| OFICO | HONORARIOS | 88,91 |
| EZCURDIA AROSTEGUI, MIGUEL | fotokopiak. | 438,14 |
| OLANO ZABALETA, MIGUEL RAMON | ekaineko deposituko mantenimendua. | 90,75 |
| OLANO ZABALETA, MIGUEL RAMON | jardinak moztu. | 287,38 |
| CAMPOS WALSH, VENUS MARGARITA | ekaineko garbiketak. | 2.278,83 |
| CAMPOS WALSH, VENUS MARGARITA | ekaineko zakarrontzien bilketa. | 123,42 |
| ERASO OCHOTORENA, IÑAKI | argiztapenaren hainbat konponketa | 258,94 |
| URZUBI S.A | HAINBAT EROSKETA. | 530,16 |

| | | |
|---|---|-------------------|
| ARIZONDO ZORTZI SL | fESTETAKO LANGILEEN GOSARIA | 56,90 |
| WIKAI | ekaineko gastua. | 93,99 |
| IBERDROLA COMERCIALIZADOR DE REFERENCIA | urberoa 2023-05-31 2023-06-29 | 7,35 |
| IBERDROLA COMERCIALIZADOR DE REFERENCIA | argiztapen publikoa 2023-05-30 2023-06-29 | 214,54 |
| | | |
| CARRILLO RUIZ, CUSTODIA ANGELES | EKAINEKO URAREN KONTROLA. | 90,00 |
| OLANO ZABALETA, MIGUEL RAMON | ESKOLA INGURUAK GARBITU | 75,63 |
| OLANO ZABALETA, MIGUEL RAMON | belarrak moztu | 494,29 |
| OLANO ZABALETA, MIGUEL RAMON | ikastetxe inguruak txukundu. | 90,75 |
| OLANO ZABALETA, MIGUEL RAMON | presa ingurua eta atalablenea ingurua atondu. | 100,43 |
| OLANO ZABALETA, MIGUEL RAMON | bide gorriko eta etxaburua-elostako belarrak moztu. | 166,38 |
| EROSKI HIPERMERCADO | pelotako eskolako merienda | 31,08 |
| COPYTEC | pelotarako fotokopiak | 18,50 |
| GOIENER, S. COOP. | UDALETXEKO ARGIA 2023/06/01ETIK 2023/06/30ERA. | 457,07 |
| SERLIMPIA, SL. | festetako komun portatilen alokairua eta garbiketa. | 2.280,85 |
| SERLIMPIA, SL. | presako komunaren ekaineko garbiketa. | 67,76 |
| OTAMENDI ARTOLA, LORENZO | F. BETELUTIK TOLOSARAKO EKAINEKO BIDAIA. | 123,96 |
| AGEDI-AIE | SAN PEDROAK | 93,05 |
| OLANO ZABALETA, MIGUEL RAMON | FESTETAKO GARBIKETAK. | 874,95 |
| MUGUERZA AMONDARAIN, M ^a TERESA | SEILUEN EROSKETA | 39,00 |
| MAIMUR | 6 KOPIA | 3,30 |
| LLAVES ENDERIZ SL | LLAVE SERRETA | 9,55 |
| ARAXES ESKUALDEKO ESKOLA PUBLIKOA | ATERPEKO GARRAIOA | 408 |
| SORGINTXO HAUR ESKOLAKO LEHEN ZIKLOA | | |
| SEIKIDE KOOP. E. ASESORIA AHOLKULARITZA | NOMINAK ETA ATZERAPENAK. | 206,91 |
| ESTANGA ARRIZUBIETA, MARIA ROSARIO | maiatzeko sorgintxoko garbiketa produktuak. | 11,55 |
| ESTANGA ARRIZUBIETA, MARIA ROSARIO | maiatzeko sorgintxoko janaria. | 59,46 |
| SEIKIDE KOOP. E. ASESORIA AHOLKULARITZA | NOMINAK | 110,72 |
| OSOTARA | | 25.458,19€ |

Lehendakariak fakturak bozkatzera ekarri eta udalbatzan diren kide guztiek aho batez onartu egin dituzte.

10. GALDERAK ETA ESKAERAK

Ez da ez galdera ez eta eskaerarik egin.

Arratsaldeko bederatzia eta laurden direnean, bilkura amaitu eta altxatu egin da, idazkaria naizen honek ziurtatzen dudana.